

2021eko EAEko Ikastoletako lan-hitzarmena berritzeko aurreakordioa sinatu dugu.

Covid 19aren pandemiaren ondorio ekonomikoek eta jaiotze tasaren jaitsierak baldintzatutako testuinguruan hasitako negoziazio prozesuak fruituak eman ditu. LAB sindikatuak Ikastolen Elkartearekin eta Eusko Ikastola Batzarekin Lan Hitzarmena berritzeko akordioa lortu du.

Negoiziari mahaian adostasun batera iristeko moduko edukiak egon zitezkeela baloratu orduko, gure delegatu, afiliatu eta sindikatuko beste kideekin proposamena kontrastatzeari ekin diogu, gehiengoaren oniritzia jasoz.

Adosturiko akordioan, Lan-hitzarmen berriak jaso beharreko hobekuntzak zehazten dira, eta bertan bi aldeek gehienez 3 hilabeteko epean Lan Hitzarmen berria erredaktatzeko konpromisoa hartu dugu.

Era berean, testuinguru zailean eman den ikasturte honetan ere, azken urte luzeetan bezala, ikastoletako langile guztien enplegua mantentzea lortu dugu, kaleratzeak ekidinez. Bide honetan, Erretiro Partzial Aurreratua gauzatzeko 2020ko otsailean sinatutako akordioa luzatzeko prestutasuna agertu du LAB sindikatuak.

Info honekin batera, lortutako akordioa atxikitzen dizuegu oso-osorik. Hala ere, hona hemen akordioak biltzen dituen hobekuntza nagusiak:

Lan-sariak

2021ean soldata baxuenak dituzten kan kategorietarako %1,75eko soldata igoera adostu dugu. Gainontzeko kategoriatarako %1,4. Honek oinarritzko soldatari zein antzinatasunari eragingo diote. Urtarriletik honako atzerapenak ekaineko nominan jasoko ditugu.

DBHko maisu-maistren soldata parekatzea

- DBHko lehenengo zikloko maisu/maistren oinarritzko soldata, lizentziatuen soldatarekin 3 ikasturtetan parekatzea adosten da, ikasturte bakoitzaren hasieran %33,33a parekatuz.
- Lanaldiaren %50a edo gutxiago duten langileen kasuan, 2021eko irailean parekatuko da osotasunean.
- Atxikituta doa 2021eko lansari taula.

Zorra

- Ekaineko nominan, oraindik zorraren zatiren bat jasotzeko duten langileek, ekaineko nominan honako kopuruak jasoko dituzte:
 - HH, LH, DBH1 eta AZP: 2021eko urteko soldata osoaren %1a
 - DB H2, Batxi eta Lanbide Heziketa: 2021eko urteko soldata osoaren %1,4a
- Atxikiturik doaz kantitate zehatzak

Zenbait lan kategorien desagertzea

- Mantenu langile kategoria 2021eko uztailaren 1etik aurrera desagertuko da.
 - Sukaldari laguntzaile kategoria desagertze bidean jartzen dugu. 2022ko uztailan kategoria desagertuko da.
- Kategoria hauetan dauden langileak, haien goiko kategoriaren lan baldintzak eskuratuko dituzte.

Lan Kargaren arintzea

- Hezkuntza Laguntza Espezialistek astean ordu erdi osagarri gehiago edukiko dute.
- Haur Hezkuntzako bigarren zikloko tutoreei ikasturteko eskola-orduak, 15 orduz jaitsiko zaizkie.
- Lehen Hezkuntzako tutoreei ikasturteko eskola-orduak, 20 orduz jaitsiko zaizkie

Lizentziak eta baimenak:

- Gurasotasun baimena: bi gurasoen baimena berdintzen da (16 aste +2)
- Seme alabak medikuak ez diren osasun-espezialistengana joateko, ikasturtean 10 ordu.
- Askatasuna berreskuratu edo herriratu diren senideei egokitzapenean laguntzeko, ikasturtean 15 ordu.
- Euskal Herriko kanpo eta norberaren bizilekutik 200km baino gehiagora bizi diren senideen gaixotasun larri, heriotza edo ezkontza kasuetan, nahi beste soldata gabeko egun hartzeko eskubidea.

Ikastoletako langileen kudeaketan ikuspegi nazionalerako urratsak

- Ikastoletako kontratazio batzordeek Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko sarean metaturiko lan esperientzia aintzat hartu beharko dute.
- EHIn eszedente eta beharren prozedura gauzatzeko orduan Euskal Herri osoko ikastolak hartuko dira kontutan.
- Marko administratibo ezberdinen arteko ikastola batean esperientzi edo egin behar zehatzetarako buruturiko aldi baterako lekualdatze edo trukeek nahitaezko eszedentziaren izaera edukiko dute.

Klausula feministak

- Ikastola guztietan berdintasun planak gauzatzeko prozedura eta epeak zehazten dira.
- Indarkeria matxista pairatu duten langileei nahitaezko eszedentzia hartzeko eskubidea aitortuko zaie.
- Sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa jazarpen moraleko protokolotik modu berezitan berridaztea.

Zerbitzuen leheneratzea, jankide ratioak eta garbiketako metrajeak aztertu

- Jankide ratioak, garbiketa metrajeak eta zerbitzu hauen leheneratzea aztertzeko eta zehazteko batzorde teknikoak eratuko dira irailean. Abenduan Lan-hitzarmen mahaia proposamenak aurkeztu beharko dizkiote.

Eskertzekoa da honaino heltzeko LABeko delegatuek eta kideek egindako lana. Aurrerantzean ere erronka handiak ditugu. Duela urtebete 2018-2019ko EAEko Ikastoletako Lan Hitzarmena argitaratu zen, eta orain 2021erako akordioa lortu dugu hainbat hobekuntza jasoz. 2022ko urtarrilean Lan Hitzarmen berri bat negoziatzeari ekingo diogu, urratsez urrats langileen eskubideen hobekuntzan aurrerapausoak emanez.

LAB, orain arte bezala, lehen lerroan egongo da, Ikastoletako langileen alboan borrokan, bai ikasgeletan eta bai kalean!

Urratsez urrats, lan baldintza duinetan oinarritutako Euskal Eskola Publiko Komunitarioa iruten!

**2020 ETA 2021 URTEETARAKO ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO
IKASTOLEN LAN -AKORDIOA**

LANSARIAK• **2020 URTERAKO LANSARI-TAULAK**

Lan hitzarmeneko 14. artikuluko lan-kategoria guztientzat, eta oinarrizko soldata eta antzintasunean, 2020 urterako %2ko altxaketa adosten da.

• **2021 URTERAKO LANSARI-TAULAK**

Lan hitzarmeneko Aldi Baterako VI. Xedapenean zehazten denez, lan-akordio honen sinatzaileek bat egiten dute ikastoletako langileen soldatak Hezkuntza Sailean indarrean daudenekin parekatzeko helburuarekin. Hori eskuratu bitartean, Ikastolen Elkartea Partaide eta EIB prest daude 2021 urtean urrats bat emateko. Ondorioz lan hitzarmeneko 14. artikuluko lan-kategorientzat, bai oinarrizko soldata bai antzintasunean, 2021 urterako %1,4ko altxaketa adosten da. Soldata baxuago duten lan-kategoria hauetan altxaketa % 1,75eko izango da: 0-3 zikloko hezitzaileak eta hezitzaile laguntzaileak –nahiz eta kategoria hau desagertze bidean egon-, Hezkuntza Laguntza Espezialistak, jarduera osagarrietako langileak, administrari laguntzaileak, sukaldariak, sukaldari laguntzaileak, jangela, garraio eta garbiketako langileak, mantenuko arduradunak eta mantenu langileak, eta atezainak.

• **DBH 1. Zikloko maisu-maistren ekiparazioa lizentziatuekin.**

1.ziklo honetako maisu/maistren soldatak lizentziatuen oinarrizko soldatekin parekatzea eta ekiparazioa 3 urtetan gauzatzea adosten da, hasiera data 2021eko iraila izanik, eta ikasturte bakoitzaren hasieran %33,33 parekatuz.

Lanaldiaren %50 edo gutxiago duten langileen kasuan, ekiparazioa 2021eko irailaren 1ean parekatuko da.

Akordio hau lan hitzarmeneko aldi-baterako xedapenetan jasoko da.

• **Soldaten parekatzea**


Helburua soldatak parekatzea izanik, Lan-Akordio honen sinatzaileek zalantza dute EAEko hezkuntza moduluetan ordaintzen dena Administrazioen menpeko irakasleekiko %95era iristen ote den. Ondorioz lehenengo talde profesionallekiko parekatzea argitzea helburu, sinatzaileek bi hilabeteko epean azterketa bat egitea adosten dute.

ESFORTZUA

Aurreko esfortzua gauzatzeke dutenentzat, hauek dira ordainketa kopuruak, 2021eko lanskariak oinarritzat hartuta:

- HH, LH, DBH 1: oinarrizko soldataren %1
- DBH 2, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan : oinarrizko soldataren % 1,4

Ordainketa 2021eko ekaineko nominan gauzatuko da "esfortzua" kontzeptupean.



**LAN HITZARMEN HONEN APLIKAZIO-EREMUAN DAUDEN LAN-KATEGORIEN
EGOKITZAPENA**

14. artikuluan ikastoletako lan hitzarmenaren aplikazio-eremuan dauden langileak lanen arabera sailkatzen dira, eta zerrenda horretan ondorengo aldaketak egitea adosten da, indarrean gelditzen diren lan-kategoriaren funtzioak berrikusiz:

- Mantenu langile kategoria: 2021eko uztailaren 1etik aurrera lan-kategoria hau kentzea adosten da, mantenu arduradun lan-kategoriara pasatuz.
- Sukaldari laguntzaile kategoria: lan-kategoria honetan langile bat duten ikastoletan kategoria hori 2021eko uztailaren 1etik aurrera kentzea adosten da. Langile bat baino gehiago duten ikastoletan lan-kategoria desagertzea 2022ko uztailak 1ean burutuko da. Langile hauek sukaldari kategoriara pasatuko dira.
- Etxezain kategoria: lan-kategoria hau desagertze bidean jartzea adosten dute, ez baita azken urteetan lan-kategoria honetan kontrataziorik egin.

LANALDIEN ATALEAN GEHIKUNTZAK ETA ALDAKETAK

36.- artikuluko "Ikasturteko eta asteo lanaldiak".

B.- Haur Hezkuntzako bigarren zikloa: horrela gelditzen da artikuluko hau Ikastolan zuzenean bete beharreko ikasturteko lanaldia 1293 orduakoa izango da, 845 bitarteko eskola ordu eta jolasaldi, tutoreek 830, eta gutxienez 413 ordu osagarri, tutoreen kasuan 428.

Asteo lanaldia 24 eskola-ordutakoa izango da, jolasaldiak barne.

Planifikazio pedagogikoa dela eta, tutore batek urtean finkatutako eskola-orduak baino gehiago izango balitu, ordu horiek zuzenean bete beharreko 1293 orduetatik konpentsatuko dira. Konpentsatzeko modua aldeen artean adostuko da.

C.- Lehen Hezkuntza: horrela gelditzen da artikuluko hau

Ikastolan zuzenean bete beharreko ikasturteko lanaldia 1293 orduakoa izango da, 775 eskola-ordu, tutoreek 755. Gutxienez, 370 ordu osagarri bermatu ondoren, tutoreen kasuan 390, jolas-ordutako zaintza izendatua badu 88 ordu. Gainerakoa, ikastolan zuzeneko dedikazioko 1.293 ordu bete arte, ordu osagarrien kopurua izango da

Asteo lanaldia 22 eskola-ordutakoa izango da, 2,5 jolas-ordu, egiteko hori izendatua badu.

Tutore direnen kasuan, eskola orduen gutxitzearen helburua ikasleen banakako jarraipena indartzea da, ikastoletako ikasleen ikasketa prozesu pertsonalizatuan urrats gehigarri bat emanez.

G.- Hezkuntza Laguntza Espezialistak (HLE):

Azken esaldia aldatzen da: "HLEk astean gutxienez, %50eko lanaldia burutzen dutenak, ordu eta erdi osagarri edukiko dute, eta %50 baino gutxiagoko lanaldia burutze dutenak ordu bat".

BAIMEN ATALEAN GEHIKUNTZAK ETA ALDAKETAK

- 45. artikulua.- Ordaindutako Lizentziak:

2

Lan-akordioaren sinatzaileek, haurdunaldi, harrera zein adopzioetan guraso biek lizentzia berdina izango dutela adosten dute, hau da: 16 aste + 2 aste.

- Berria: Langile bakoitzak seme-alaben mediku ez diren osasun arloko beste espezialista batengana eramateko ikasturtean 10 ordu hartu ahal izango ditu.
- Berria: Odolkidetasunezko 2. mailara arteko ahaideek ikasturtean 15 orduko baimen ordaindua izango dute askatasuna berreskuratu edo antzeko egoeren ondorioz herriratu diren senitartekoaren egokitzapenean laguntzeko.
- Berria: Euskal Herritik kanpo eta norberaren bizilekutik 200 km baino gehiagora bizi direnean, ahaidetasun bigarren gradura arteko senideen gaixotasun larri, heriotza eta ezkontza kasuetarako, Lan Hitzarmenak eskaintzen dituen lizentzia ordainduez gain, langileak behar beste soldata gabeko egunak hartu ahal izango ditu.

KONTRATAZIOAN GEHIKUNTZAK ETA ALDAKETAK

21. artikulua- Kontratazioetarako prozedura orokorra

Ondorengo atala gehitzea adosten da:

- Kontratazio batzordeek aniztasun funtzionala duten langileak kontratatzeko irizpidea lehenetsiko dute, gutxienez 13/1982 legeko erreserba kuotara heltzeko.
- Kontratazio berriak gauzatzerakoan Euskal Herriko Ikastolen Elkartea osatzen duten sarean izandako lan esperientzia aintzat hartuko da.

LANPOSTU MANTENTZEKO NAZIO IKUSPEGIA

Lanpostuak mantentzea 29. artikuluan ondorengo jasotzea adosten da:



Euskal Herriko Ikastolak Elkarteko ikastoletan eszedente eta beharren prozedura gauzatzerakoan Euskal Herri osoko ikastolak hartuko dira kontutan, nazio gisa jokatzuz, eta honako prozedura erabiliz:

- Eszedente diren langileak, haien ikastola kokatutako lurraldean birkokatzeke ahalegina egingo da lehenik.
- Eszedentea bere ikastola dagoen lurraldean bertan birkokatzea ezinezkoa izango balitz, bere eremu administratibo berdinarekin menpe dagoen birkokatzeke saiakera egingo da.
- Aurrez aipaturiko birkokapena ezinezkoa izango balitz, beharra dagoen ikastola batean birkokatzeke ahalegina egingo da.


Eremu administratibo ezberdin arteko birkokapenek sor ditzaketen arazoei irtenbidea emateko bitariko batzordea eratuko da.

LEKUALDATZE, TRUKE ETA ESZEDENTZIAK

Eremu Administratibo ezberdinen arteko ikastola batean esperientzia edo egin behar zehatzetarako buruturiko aldi baterako lekualdatzea eta trukeak nahitaezko eszedentzia izaera izango dute.

3



INDARKERIA MATXISTARI ETA GENERO DISKRIMINAZIOARI AURRE EGITEKO NEURRIAK

- **SEXU JAZARPENARI ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENARI AURRE EGITEKO BERARIAZKO PROTOKOLOA.**

Alde sinatzaileek moral jazarpena eta indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa jasotzen duen atala modu bereizituan berridaztea adostu dute.

Indarkeria matxistari aurre egiteko berariazko protokoloa osatuz.

Protokolo hori berraztertuko da, bertan honako hauek jasotzen direla ziurtatzeko: definizioak, eraso mota ezberdinak, prebentzio neurriak, bermedun prozedura, hutsegiteak, jarraipena eta ebaluazioa.

- **51. artikuluko Nahitaezko eszedentzian** ondorengo egoera jasotzea eta arautzea adosten da:

“Langile batek indarkeria matxistaren biktima denean, eszedentzia eskatzeko eta disfrutatzeko eskubidea izango du”.

- **ALDI-BATERAKO Laugarren Xedapena** ondorengo jasotzea adosten da:

2020-2021 ikasturtean zehar, berdintasun planak garatzeko batzordeak jarriko dira martxan falta diren ikastola guztietan.


Batzorde hauek parekideak izango dira genero ikuspegia dagokionez zein ikastoletako titular eta langileen ordezkari kopuruari dagokionez, hauek dauden ikastoletan.

Batzorde hauen funtzioa lan arloan berdintasun alorreko ikastolaren diagnosia egin eta genero diskriminazio egoerak gainditu eta ekiditeko plan sistematizatua negoziatzea izango da. Diagnosia egin zein plana bera diseinatzeko, batzordeak aholkulari edo teknikarien laguntza izango du.

BESTELAKOAK

1.- Sinatzaileek lan hitzarmeneko Aldi-baterako Bosgarren xedapenean (Jangeletako jankideen ratioak, garbiketako metrajeaz eta zerbitzu hauen leheneratzearen azterketa) eta Bederatzigarren xedapenean (jaiotza –tasaren jaitsieraren eraginaz azterketa) jasotako lan-batzordeak 2021eko irailean abian jartzea eta 2022 hasiera baino lehenago proposamenak aurkezteko konpromisoa hartzen dute.

2.- Aurrez adierazitakoaren baitan, Lan-Akordio honen sinatzaileen helburua negoziaketan lortutako adostasunak jaso, baita 2020ko urtarrilaren 9an ikastoletako Lan Hitzarmeneko Mahaiko bilerakoak ere, eta gehienez hiru hilabeteko epean ikastolen lan hitzarmen berri baten testu artikulatua proposatzea da.



ZERBITZU PUBLIKOAK - Irakaskuntza - Ikastolak

2021eko ekaina

2021 Lansari Taula AKORDIOA					
HILEKOA			URTEKOA		
O. Soldata	Aintzin.		O. Soldata	Aintzin.	
2.411,00	44,58		33.754,04	624,08	
1.753,46	37,30		24.548,50	522,20	
1.578,13	37,30		22.093,75	522,20	
2.411,00	44,58		33.754,04	624,08	
2.557,93	44,58		35.811,00	624,08	
2.791,12	56,00		39.075,68	783,94	
2.791,12	56,00		39.075,68	783,94	
2.791,12	56,00		39.075,68	783,94	
1.664,71	37,30		23.305,97	522,20	
1.833,57	37,30		25.669,94	522,20	
2.179,78	46,69		30.516,98	653,62	
1.934,83	42,05		27.087,66	588,75	
1.934,83	42,05		27.087,66	588,75	
1.673,74	37,44		23.432,36	524,09	
2.179,78	46,69		30.516,98	653,62	
1.599,35	42,20		22.390,94	590,79	
1.512,77	37,44		21.178,72	524,09	
1.880,71	42,20		26.329,92	590,79	
1.593,85	37,31		22.313,89	522,29	
1.531,81	37,44		21.445,29	524,09	
1.531,81	37,44		21.445,29	524,09	
1.512,77	37,44		21.178,72	524,09	
1.512,77	37,44		21.178,72	524,09	
1.512,77	37,44		21.178,72	524,09	

A) ZUZENKO IRAKASLEAK					
HAUR HEZKUNTZA 1. ZIKLOA					
Irakaslea					
Hezitzailea					
Hezitzaile laguntzailea* (Aldi Baterako Xedapena)					
HAUR HEZKUNTZA 2. ZIKLOA ETA LEHEN HEZKUNTZA					
Irakaslea					
D. B. H.-LEHEN ZIKLOA					
Irakaslea A (HH+LH Tituladuna)* (Aldi Baterako Xedapena)					
Irakaslea B (Lizentziatua)					
D. B. H.-2. ZIKLOA ETA IRAKASKUNTZA ERTAINAK					
Irakaslea					
B) IRAKASLE TEKNIKOAK: Psikologoa, Orientatzailea					
C) IRAKASKUNTZAKO LAGUNTZA-ZERBITZUETAKOAK					
Jarduerara osagarrietarako langilea					
Hezkuntza Laguntza Espezialista					
II.TALDE PROFESIONALA.- ADMINISTRARIARIK					
Administrari burua					
Ofizial administratzailea					
IKT Mantenu Teknikaria					
Administrari laguntzailea					
III.TALDE PROFESIONALA.- ZERBITZU OROKORRETAKO LANGILEAK					
Sukaldariburua					
Sukaldaria					
Sukaldari laguntzailea* (Aldi Baterako Xedapena)					
Etxezailea* (Aldi Baterako Xedapena)					
Mantenuko arduraduna					
Mantenuko langilea* (Aldi Baterako Xedapena)					
Atezailea					
Jangelako langilea					
Garbiketako langilea					
Garraioako langilea					

ESFORTZUA		
2021 EKAINA		
ETAPA	AZALPENA	KOPURUA
HH/LH	Urteko Oinarritzko Lansariaren %1a	337,54 €
DBH 1 Zikloa	Urteko Oinarritzko Lansariaren %1a	358,11 €
DBH 2 Z / Batxi	Urteko Oinarritzko Lansariaren %1,4a	547,06 €
Admin. Buru / Sukaldari buru	Urteko Oinarritzko Lansariaren %1a	305,17 €

Donostian, 2021eko ekainaren 8an

Ikastolen Elkarte - Partaidea

Patxi X. Olabarria Furundarena

Eusko Ikastolen Batza

Idoia Iruretagoiena Valle

LAB sindikatua

Lourdes Agirrezabal Juaristi